


ERALDATU



ELKAR BIZITZEKO

Unitate didaktikoa



LEHEN HEZKUNTZAKO
hirugarren zikloa

Adin gomendatua 10-12 urte

Iraupena

- 40-50 minutuko saio bat
- 25 minutuko saio erdia

Helburuak

- 1 Hezkuntzarako eskubidea lantzea, gorroto-diskurtsoak arintzeko eta gatazkak moldatzeko gakoa baita.
- 2 Gorroto-diskurtsoetan diren errealitate batzuk ezagutzea, begirada global baten pean.
- 3 Kontzientzia kritikoak sortzea..
- 4 Sentsibilizazio- eta prebentzio-jarduera egitea.
- 5 Bakoitzaren eta taldearen ardura sustatzea.

Lantzen diren funtsezko gaitasunak

Haur Hezkuntzako gutxieneko irakaskuntzak eta haien antolamendua ezartzen dituen otsailaren 1eko 95/2022 Errege Dekretuan jasotakoak:

- Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.
- Gaitasun pertsonala, soziala eta ikasten ikasteko gaitasuna.
- Herritar gaitasuna.
- Ekintzailtzarako gaitasuna.
- Kontzientzia eta adierazpen kulturalerako gaitasuna

Testuingurua eta justifikazioa

Aurten, Hezkuntzaren aldeko Mundu Kanpainaren (CME) eta Hezkuntzaren aldeko Mundu Ekintzaren Astearen (SAME) bidez, hezkuntza formalean eta ez-formalean jarri nahi dugu arreta, **gorroto-diskurtsoak zerk eragiten dituen eta zer ondorio izan ditzaketen jakiteko**; era berean, indarkeriazko pentsamendu eta narrazioak deseraikitze, eta pentsamendu nahiz narrazio

prosozialak eta eraldatzaileak eraikitzeko; eta, azkenik, aniztasunean elkar bizitzeko behar diren trebetasunak garatzeko. Testuinguru horretan, **Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailea (ETCG)** gakoa da gorroto eragiten duten diskurtsoei aurre egiteko eta Garapen Jasangarrirako Helburu (GJH) hauek lortzea ahalbidetuko dituen gizarte baketsu, bidezko eta inklusiboetarantz aurrera jotzeko:

4. GJH Guztiontzako **kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa** bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea.

10. GJH Herrialde bakoitzaren barneko eta herrialdeen arteko **desberdintasunak murriztea**.

16. GJH Gizarte **bidezko, baketsu eta inklusiboak sustatzea**.

Ikastetxeak, hezkuntza formala eta ez-formala funtsezko guneak dira gorroto-diskurtsoak eta gatazkak prebenitu, arindu eta ezabatzeko. Gune horietan, izan ere, irakasleek eta monitorea funtsezko eginkizuna betetzen dute gizarte inklusiboak sustatzeko. Hasi baino lehen, garrantzitsua da gorroto-diskurtsoa zer den hobeki jakitea eta esan behar da gaur egun ez dagoela haren inguruko definizio adosturik.

Hezkuntzaren aldeko Mundu Kanpainaren bidez, gorroto-diskurtsoari buruzko definizio honekin egiten dugu bat: arrazakeriazko gorrotoa (kulturala, erlijiosoa eta/edo jatorriari buruzkoa), aporofobia eta matxismoa zabaldu, eragin eta justifikatzen duen adierazpen oro da, edota desgaitasunaren, osasun mentalaren eta sexu- nahiz genero-dibertsitatearen kontrakoa; edota intolerantziak eragindako beste gorroto modu batzuk izan daitezke, demokrazia, gizarte egonkortasuna, bakea eta kultur kohesioa/ dibertsitatea eta aniztasuna higatzen dutena (Komunikazio Komunitario, Alternatibo eta Parte-hartzailearen arloko Ikerketa Sarearen eta Nazio Batuen definizioan oinarritua).

Gure iritziz, Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailea gakoa da -tolerantziaren bidez eta desberdintasunak eta aniztasunak onartuz- gizarte inklusiboak sustatzeko eta eraikitzeko, aberasgarriak zaizkigulako eta, horri esker, gure gizarteak demokratikoagoak direlako eta pertsona guztientzako eskubide gehiago bermatzen dituztelako.

Espero dugu, lan honen ondorioz, gorroto-diskurtsoekiko jarreretan dauden ezberdintasunak



**EZBERDINTASUNAK
ETA ANIZTASUNAK
ABERASGARRIAK
ZAIZKIGU**

eta desadostasunak murriztea eta gune seguruak, bakezaleak eta inklusiboak sustatzea.


Ikasleekin lantzen joango zaren material guztietan behar diren tresnak topatuko dituzu gorroto hori eta haren inpaktuak atzeman, prebenitu eta konpontzeko, bai eta huraxe eragiten duten zergatiak buruzko argibidea ere. Hori guztia era dinamikoan garatua, hezkuntza-ziklora eta denboretara egokituta. Funtsezkoa iruditzen zaigu hezkuntzaren gune formaletatik eta ez-formaletatik bultzatutako gogoeta, haurrek gaiak duten hausnarketa, sentimendua eta iritzia jakiteko aukera ematen baitigu. Proposamen hau ezagutzera animatzen zaituztegu. Eragingarria izango zaizuelakoan gaude. Baditu dinamikak, jolasak, jarduerak eta zuen moldera egokituko dituzuen baliabideak, beti egin ohi duzuen bezala.

Hezkuntzaren aldeko Mundu Kanpainaren bidez, gorroto-diskurtsoak eraldatuko dituen hezkuntzaren alde egiten dugu, banakoei nahiz giza taldeei kalte handi-handia eragiten dieten diskurtsoak baitira; horretarako, begirada kritiko eta globala darabilgu, gorroto-diskurtsoak zerk eragiten dituen topatzeko eta zer ondorio dituzten erakusteko. Diskurtso horiek haustea jarraitu beharreko bidea iruditzen zaigu mundu bidezkoago, gizatiarrago eta jasangarriago eraikitzeko. Ematen dugun pauso bakoitza lagungarri zaigu huraxe lortzeko bidean.



OROITARAZI NAHI DIZUGU

baliabideak ez badatoz bat zure hezkuntza-etapakoekin edota bestelakoak interesatzen bazaizkizu, arazorik gabe landu ditzakezula, material arras moldakorrek baitira eta erraz egokitzen baitira.



Iraupena: 40-50 minutuko saio bat (irakasleek eta monitoreek beren ikastetxeko edo lantokiko saioen iraupenera egokituko dute).

Materialak: Etiketa zuriak, albisteak, koloretako kartulinak.

Saioaren garapena

1.jarduera: **Etiketen boterea**

Lehenik eta behin, taldeak egitea proposatzen dizugu albisten boterea era dinamikoan lantzeko eta **aurreiritzien eta etiketen gaia** bete-betean emozioen bidez jorratzeko.

Hainbat etiketa prestatu (1. Eranskina) eta ikasleen kopetan jarriko ditugu, baina ez dakite etiketa bakoitzak zer duen idatzia. Ikasleak zutik ibiliko dira lasai eta poliki. Musika pixka bat jarriko dugu apal, halako giro lasaia eta eragingarria sortzeko. Ikasleei jarraibide hau emango diezue: *“Irakurri gainerako taldekideen etiketak, eta gizarteak tratatu ohi dituen bezala tratatuko dituzue”*. Jarraibide horrekin bat, pertsonak daramaten etiketan oinarritutako sentimenduak eta ekintzak adieraziko dira.

➔ **Ikasleek ezin dute hitz egin. Adierazpena gorputzezkoa eta afektiboa da.**

Bost minutuz, parte-hartzaile bakoitzak etiketa guztiak irakurri eta beste pertsonengan aurkitzen joango den etiketaren arabera jokatu du.

Denbora agortzen denean, irakasleak edo monitoreak bi ilaretan jartzeko eskatuko die, hau da, ikasle erdiak ilara batean eta beste erdian bestean, buruz buru, etiketen arabera multzokatuta (desgaitasuna, pertsona arrazializatuak...).



Irakasleak edo monitoreak galdetuko die nola sentitu diren, besteek nola tratatu dituzten, haiek nola tratatu dituzten beste pertsona batzuk. Gogoeta interesgarriak ateratzeko aukera izango dugu pertsonen jartzen dizkiegun etiketez, dela beste herrialde batetik etorri hutsagatik, dela desgaitasuna izateagatik, dela lanbide zehatz batengatik, dela teknologiak eskuratzerik ez izateagatik, dela generoagatik...

- Nondik datoz etiketak eta zergatik bereizten naute gainerakoengandik? Zergatik urruntzen gaituzte desberdintasun horiek? ?

- Gauza al naiz beste pertsona batzuekin enpatizatzen? Ezagutzen al dut haien egoera?

Nola sentitu diren hausnartu eta gero, taldeak egingo ditugu, dinamikan antzeko sentiera izan dutenak elkartuta, gizarteak eman dien tratuarekin bat. Adibidez, desgaitasun etiketa duten pertsona guztiak talde berean egongo dira. Ongi sentitu

diren pertsonak, beste batean. Beren arrazari buruzko etiketak izan dituzten pertsonak, beste batean. Genero etiketak izan dituztenak, beste batean, etab. Talderen bat oso ugaria bada, zatitu bitan. Onena da taldeek gehienez 4-5 parte-hartzaile izatea, guztiek ere parte hartzeko modua izan dezaten.

2. Jarduera: Albisteen boterea

Saio honen bidez, gure asmoa da zure ikasleak **interneteko lerroburu eta albisteen ikertzaile** bihurtzea. Guk hainbat lerroburu ekarriko ditugu, guztiak ere diskurtso negatiboz beteak. Gogoratu askotan gorroto-diskurtsoak ezjakintasunaren, buloen eta/edo egiaztatu gabeko datuen emaitza direla, eta min eta kalte egin nahi diote pertsona edo talde bati, haien benetako egoerari buruzko oinarririk eta azterlanik gabe.

Gorroto-diskurtsoen egoera guztiak ezin ditugunez ekarri jarduera honetara, aukera ona ere bada ikasgelan edo zure ikastetxean bizi izandako egoeraren bat lantzeko, baldin eta pertsona edo talde baten aurkako gorroto-diskurtsoak gertatu badira.

Jardueraren helburua da **gorroto-diskurtso horien zergatiak jakitea** eta ikasleei ikertzen uztea zergatik gertatu diren. Atzematea zer ezaugarri berdin eta zer ondorio dituzten, eta zer egin dezaketen bai bakoitzak bai ikasgela/ikastalde diren heinean gorroto-diskurtso horiek hausteko; izan ere, horrelako diskurtsoek are gorroto handiagoa baizik ez dute elikatzen eta elkarren aurka jartzen gaituzte gizartearen baitan. Ikasleei emango dizkiezun albistetan hainbat galdera egingo dizkiegu, egoera bakoitza eta haiei lotutako gorroto-diskurtsoak hurbilagotik ikertu ahal izan ditzaten. Albiste bakoitzaren ondoren, gizartearen zati batek interneten idatzitako iruzkinak jarri ditugu. Askotan, albisteei lotutako iruzkinetan gorroto handia eragiten da, eta, horrekin batera, intolerantzia eta polarizazioa.

Animatu sarean diskurtso kaltegarriak atzematera. Nola atzeman? Zer egin, horrelakoak topatzen baditugu?

Detectómetrorekin pista batzuk emango dizkizugu (2. eranskina). Zuek ere proposamenari ekarpenak egiten ahal dizkiozue, eta aurten, 2024ko Hezkuntzaren aldeko Mundu Ekintzaren Astearen jarduerak egingo dituzten pertsona guztien artean aberastuko da. Horrela, horrelako diskurtsoen zergatiak ulertuko ditugu.

➤ **Oso garrantzitsua da ikasleei azaltzea** gorroto-diskurtsoen edo gorroto-delituaren ikusleak garenean, haien kontra egiten ez badugu, egoera horien konplizeak izango garela eta pertsonengan edo gizarte taldeetan duten inpaktu kaltegarria betiketuko dugula.



**ZURE
KONPLIZITATEAK ERE
GORROTO-DISKURTSOAK
ERAGITEN
DITU**

Irakasleak edo monitoreak albiste bana banatuko die taldeei. Gomendagarria da talde bakoitzak gehienez 4-5 kide izatea, guztiek parte hartzeko modua izan dezaten. Hiru talde baino gehiago badira, ikasgela bakoitzaren egoera dela-eta gehien lantzea interesatzen zaigun albistea errepikatuko dugu, horrela lehenetsuneko mezua indartzeko. Guk proposatu ditugun albisteez ez badute islatzen zuek ikasgelan landu nahi duzun gaia, pentsatu lerroburu bat, albiste bat, deitu guri eta elkarrekin sortuko dugu, gure jardueretan sartzeko.

Taldeek 20 minutuz landuko dituzte albisteen galderen bidez. Gero, ondoko 10 minutuan, talde bakoitzak bere albistean zer gorroto-diskurtso atzeman dituen azaldu beharko die gainerakoiei.

Ondoren, hona ekarri ditugun **3 albistek**:

1. Albistea: **Migrazio-mugimenduak**

Ikasleei orrialde bat emango diegu eta, bertan, bideoaren pantaila-argazki bat agertuko da, bai eta gogoeta egiteko galderak ere (4. Eranskina). Nabarmendu nahi dugu galderek indar handia dutela ikasleek berek jakin dezaten zer dagoen gorroto-diskurtsoen atzean eta horrelako diskurtsoak nola eraldatu ditzakegun.



Albistea 2023ko irailaren erdialdekoa da eta kontatzen da 5.000 immigrante iritsi eta lehorreratu zirela Lampedusan. Albistearen tonua eta albisteari egindako iruzkinak ikusirik, argi dago alarma sortu nahi dutela gizartean.

Bideoak gizartea nahastu eta engainatu nahi du, egiazkoa ez den gauza bat sinestarazteko. Izan ere, beste une bati eta beste leku bati dagokio. Bideoa, egiazki, 2020ko apirilekoa da eta Tunisiaren eta Libiaren arteko mugan grabatu zen. Hala, 4. eranskinean egiazko albistearen berri ematen duen bideoa duzu.

Informazioa web batetik atera da, zurrumurruak edo gezurrezko albistek (*fake news*) gezurtatzen dituen <https://maldita.es/malditobulo/20231004/personas-negras-carretera-lampedusa/> webetik, hain zuzen. Albisteei buruzko zalantzarik baduzu, jo web horretara edo idatzi haren Whatsappera (644 22 93 19) eta jakingo duzu egia edo gezurra den. Albistea berez egiazkoa da; ez, ordea, huraxe ilustratzeko erabili zen bideoa. Eta interneten murgiltzen bazara, datuak ezberdinak dira hedabide batetik bestera.

Saioaren helburua ez da migrazio-mugimenduen zergatiak eta ondorioak lantzea, baizik eta bulo eta zurrumurruek bidez sortzen diren gorroto-diskurtsoak aztertzea. Dena den, 4. Eranskinean, informazio egokia aurkituko duzue gaia bere testuingurura ekartzeko eta ikasleekin lantzeko; horrela, gorroto-diskurtsoen aurkako argudioak osatzeko.

Abiapuntu ona da ikasleei galdetzea ba ote dakiten non dagoen Lampedusa. Jarduera hau historian, geografian eta matematikan landu dezakezu, eta gehiago jakin Mediterraneo itsasoko uharte italiar horri eta haren historiari buruz; halaber, migrazio-mugimenduez, zergatiaz eta ondorioez mintza zaitezke.

• Zergatik mugitzen dira pertsonak leku batetik bestera?

• Migratzeko eskubidea dugu?

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 13. artikularekin bat, pertsona orok du joan eta etorri aske ibiltzeko eskubidea eta Estatu baten lurraldean bizilekua aukeratzekoa, eta pertsona orok du edozein herrialdetatik alde egiteko eskubidea, baita norberetik ere, eta norbere herrialdera itzultzekoa.

➡ **Buloak gezurrezko datuak erakusten ditu pertsona, talde edo egoera bati buruz era puztuan.** Aurreiritziz eta estereotipoz betea dago. Begirada estatiko eta murriztailea da; ez ditu jakin nahi erakutsi nahi denaren zergatiak eta ondorioak; gizartea muturrera eraman nahi du, bertan diren eremu grisak kontuan hartu gabe. Intolerantzia sustatzen du, bizikidetzari eta gizartean eta kulturaren dagoen aniztasunari kaltea eragiten dieten datu kaltegarriak erabiliz. Zurrumurrurik askok gorroto-diskurtsoak dakartzate eta, sare sozialen bidez, horrelako diskurtsoak sareetan ugaritzen dira, eta *datsegit* eta bestelako iruzkin iraingarriak sortzen dira, are gorroto eta indarkeria handiagoa eraginez.

Gorroto-diskurtsoak eragiten dituzten buloei, *fake news* edo albiste faltsuei aurre egiteko, garrantzitsua da sare sozialen edo hedabide fisikoen bidez iristen zaigun informazioa, albistea edo bideoa egiaztatzea.

Behin buloa atzematen dugunean, ikertu eta egiazko datu egiaztatuak lortu behar ditugu, eta horrela prozesu toleranteak eta berdintasunezkoak sortu, bai eta bizikidetzarako eta bakerako guneak ere, ondoko eranskinetan aipatzen diren bezala. Beti egin behar dugu zurrumurruek aurka (ZURRUMURRUAK STOP); beraz, inoiz ez dugu partekatuko buloa den iruzkinik edo bideorik.

➡ **Hezkuntzaren aldeko Mundu Kanpainak arreta jarri nahi du diskurtso positiboak eragiten dituzten haiengan, bai eta gatazka elkarrizketaren bidez konpondu nahi duten haiengan ere.** Gorroto-diskurtsoak zalantza jarri eta geldiarazten dituzten ekintzak indartu nahi ditugu, gune seguruetan esku hartuz. Taldeak botere handia dauka gorroto-diskurtsoak geldiarazteko.

Esteka honetan, informazio gehiago aurkituko duzu ZURRUMURRUAK STOP SAREARI buruz:

<https://stoprumores.com/>

2. Albistea: Desberdinkeria emakumezkoen futbolean

Ikasleei orrialde bat emango diegu eta, bertan, albistearen pantaila-argazki bat agertuko da, bai

eta gogoeta egiteko galderak ere (5. Eranskina). Nabarmendu nahi dugu galderek indar handia dutela ikasleek berek jakin dezaten zer dagoen gorroto-diskurtsoen atzean eta horrelako diskurtsoak nola eraldatu ditzakegun.

Albistean (*El debate*, 07/10/2023) honako informazio hau ematen da: **“Emakumezkoen futbolak interesik sortu gabe segitzen du Espainian.** Gutxienez estadioetan biltzen diren ikusleei dagokienez. Oso gutxi joaten dira. Behin iraganik hedabideen arreta selekzioaren aldarrikapenengatik eta eskakizunagatik, neska jokalariai errealitatera itzuli dira: zelaia hutsik daude”.



Saioaren helburua ez da genero desberdinkeriaren zergatiak lantzea, baizik eta errealitate horretatik abiatutik sortzen diren gorroto-diskurtsoak eta horrek dakarren desberdinkeria aztertzea. Dena den, abiapuntu ona izango litzateke ikasleei galdetzea ea ezagutzen ote duten erreferentziako emakumerik futboleko edo kirolekoan. 5. Eranskinean haietako batzuk erakutsiko dizkizuegu. Nahi baduzu, bizitza-istorio bat aukeratu eta zure ikasleekin partekatu dezakezu.


Albiste hori zehazki urriaren 7an argitaratu zen, emakumezkoen mundu txapelketaren ondotik, Espainiako selekzio jokalariek irabazitakoa. Txapelketan zehar, 5,6 milioi ikusle izan ziren. 2022ko martxoan, gainera, Barça-Madril partidan, emakumezkoen partida bateko ikusle errekorra hautsi zen, 91.553 ikusle bildu baitziren. Argibideak nahi badituzu, 5. Eranskinean hainbat albiste topatuko dituzu. Garrantzitsua da azpimarratzea zeinen kalte handia egin dezaketen albisteetan egiten diren iruzkinak; izan ere, gorroto-diskurtsoak sortu eta sustatzen baitituzte, desberdinkeria betiketaz gain.

Baliteke albistearen egia izatea, baina haren zergatiari erreparatu behar diogu eta pertsona guztiei eta haien eskubideei ikusgaitasuna ematearen garrantziari ere.

➡ **Hezkuntzaren aldeko Mundu Kanpainak arreta jarri nahi du diskurtso positiboak egiten dituzten haiengan, bai eta gatazka elkarrizketaren bidez konpondu nahi duten haiengan ere.** Gorroto-diskurtsoak zalantzan jarri eta geldiarazten dituzten ekintzak indartu nahi ditugu, gune seguruetan esku hartuz. Taldeak botere handia dauka gorroto-diskurtsoak geldiarazteko.

3. albiste: **Desgaitasunean oinarritutako bazterkeria**

Ikasleei orrialde bat emango diegu eta, bertan, albiste agertuko da, bai eta gogoeta egiteko galderak ere (6. Eranskina). Nabarmendu nahi dugu galderek indar handia dutela ikasleek berek jakin dezaten zer dagoen gorroto-diskurtsoen atzean eta horrelako diskurtsoak nola eraldatu ditzakegun.



Albistean (*Diario de Sevilla*, 05/01/2021-18:28h) honako informazio hau ematen da:

“Bere burua entregatu du Mossos d’Esquadran, **joan den igandean haur autista bat inguratu, mugikorra lapurtu eta jipoitu zuten ustezko erasotzaileetako batek**, eta polizia atxilotu dute”.

Albistearen, autismoa duten pertsonen gorroto-diskurtsoak indarkeria fisikoa tartean dagoen gorroto-delitura pasatu da. Albiste horretan, beraz, gorroto-diskurtsoen eta gorroto-delituaren detekzioa lantzeaz gain, interesgarria iruditzen zaigu nabarmentzea nola biralizatu daitekeen bideo bat eta ikasleei erakutsi nola geldiarazi bideo kaltegarrien biralizazioa sare sozialen bidez.

Iruzkinak irakurtzen baditugu, ikusiko dugu ez dela indartzen autismoa duten pertsonenganako gorroto-diskurtsoa, baina horixe lortzen da bideo horrekin huraxe grabatu eta biralizatzen dutenean, baina badira gorroto-diskurtsoak lagundu gabeko adingabeen aurka (MENA). Hori dela eta, bideo hori grabatuz, biralizatuz eta autismoa duen pertsonari eraso eginez, gorrotoa

eragiten da albistearen iruzkinetan bai autismoa duten pertsonenganako, bai MENA gazteenganako.

Saioaren helburua ez da desgaitasunaren zergatiak eta ondorioak lantzea, baizik eta albisteen bidez sortzen diren gorroto-diskurtsoak aztertzea. Dena den, 6. Eranskinean, informazio egokia aurkituko duzue gaia bere testuingurura ekartzeko eta ikasleekin lantzeko; horrela, gorroto-diskurtsoen aurkako argudioak osatzeko.


➤ **Abiapuntu ona da ikasleei galdetzea ezagutzen ote duten desgaitasuna duen jenderik. Bazterkeria egin daiteke desgaitasuna duten pertsonen aurka?**

Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideen Nazioarteko Konbentzioaren 2. artikulua honela dio: «Honatx zer joko den desgaitasunak eragindako bereizkeriatzat: desgaitasunak eragindako bereizkeria, bazterkeria edo murrizkeria oro, horren helburua edo ondorioa bada giza eskubide eta oinarritzko askatasun guztien baldintza berdineko

aitorpena, gozamina edo egikaritzea oztopatzea edo hura ondoriorik gabe uztea politikan, ekonomian, gizartean, kulturean, arlo zibilean edo bestelako esparruetan. Diskriminazio mota guztiak barnebiltzen ditu; besteak beste, arrazoizko doikuntzak ukatzea».

Gorroto-diskurtsoei aurre egiteko, garrantzitsua da sare sozialen edo hedabide fisikoen bidez iristen zaigun informazioa, albistea eta bideoa egiaztatzea. Horretarako, datu egiazkoak eta egiaztatuak ikertu eta lortu beharko ditugu, eta, horrela, ondorengo eranskinetan aipatzen diren prozesu tolerantetarako eta berdintasunezkoak sortu ahal izango ditugu, bai bizikidetzarako eta bakerako guneak ere.

➤ **Hezkuntzaren aldeko Mundu Kanpainak arreta jarri nahi du diskurtso positiboak egiten dituzten haiengan, bai eta gatazka elkarrizketaren bidez konpondu nahi duten haiengan ere.** Gorroto-diskurtsoak zalantzan jarri eta geldiarazten dituzten ekintzak indartu nahi ditugu, gune seguruetan esku hartuz. Taldeak botere handia dauka gorroto-diskurtsoak geldiarazteko.



2. SAIOA

SUPER T-REN BOTEREA

Iraupena: 25 minutuko saio erdia (irakasleek eta monitoreek beren ikastetxeko edo lantokiko saioen iraupenean oinarrituko dira lan denbora egokitzeko).

Materialak: antifaza; koloretako txartelak, *photocall*.

Saioaren garapena

1. jarduera:

Super T-ren aurkezpena

Saioaren lehen 5 minutuetan, Super T-ren aurkezpena egin eta haren botere eraldatzailea azalduko da.

Animatu ikasleak antifaza jartzera, joko handiagoa emateko eta sinesgarriago egiteko. 8. Eranskinean dago eta inprimatu. Baten batek ez badu jarri nahi, ez dezala jarri.

KAIKO!
SUPER T NAIZ



Gogo handia nuen zuek ezagutzeko. Oso pertsonaia berezia naiz eta, superheroi guztiek bezala, super-botereak ditut eta, horri esker, gorroto-diskurtsoak eta gatazkak atzeman eta konpontzen ditut.

Nire izeneko **T** hori baliagarria da egoera globalak aldatzeko; eta horrela, mundu bidezkoago eta jasangarriagoa lortzeko jende guztiarentzat, toki guztietan.

Lagunduko al didazue gatazkak eta bidegabekeriak konpontzen eta mundua eraldatzen?



Antifaz hau emango dizuet eta hori guztia lortzeko botereak izango dituzue! Super-botere horiek bizitza osoan izango dituzue bidelagun. Ez ahaztu eta erabil itzazue!

2. Jarduera: Diskurtsoen semaforoa

Jarduera honen helburua da **gorroto-delituaren zergatiak eta haiei nola aurre egin azaltzea**, aurreko saioan lan egindakoaren ondotik. Horretarako, detectómetro (2. Eranskina) eta resolveitor (3. Eranskina) dituzu eskura, gorroto-diskurtsoak atzemateko eta konpontzeko jarraibideak ikas ditzazun. Oso garrantzitsua da gatazka edo diskurtso guztiak talde osoaren sentieratik lantzea, diskurtso positiboak bultzatuta eta ikusarazita.

Jarduera egiteko, ikasleak aurreko saioa lantzeko talde berberetan banatuko ditugu eta, horrela, talde bakoitzak gainerako taldeen aurrean azaldu beharko du nola atzeman eta konpondu beren albiste eta iruzkinetan topatu dituzten gorroto-diskurtsoak. Semaforoaren jolasaren bidez egitea proposatzen dugu. Beraz, talde bakoitzari hiru txartel banatuko dizkiogu (7. Eranskina): gorria, laranja eta berdea (ikasgelan kolore horietako kartulinak badituzu, erabil itzazu, eta horrela ez dituzu eranskinekoak inprimatu beharko).

Irakasleek aurrez detectómetroko 3-5 item aukeratuko ditu eta resolveitoroko 3-5 item. Lehenik, detectómetroko itemak landuko dira. Irakasleak lehen itema ozenki irakurriko du. Ikasleek txartel berdea altxatuko dute, itema haien albistearen islatzen bada; islatzen ez bada, txartel gorria, eta ez

badakite, txartel laranja. Horrek eraginik, eztabaida aberats eta interesgarria sortuko da taldeen artean, eta bakoitzak bere albisteak azalduko ditu item horien bidez. Taldearen ordezkaria izateko aukeratu duten pertsonak altxatuko du txartela. Gauza bera egingo da resolveitoroko itemekin. Oso garrantzitsua da nabarmentzea gure proposamena irekia dela eta ikasleek atzemandako itemak ere erabil daitezkeela.

Bukatzeko, talde bakoitzak 5 minutu izango ditu bere albistearen lerroburua era positiboan orrialde batean idazteko eta orrialdea gelako arbelean edo kortxoan zintzilikatzeke, denok ikusteko eta gogoratzeke.

Behin saioa bukatuta, joan ikasleekin Hezkuntzaren aldeko Mundu Ekintzaren Astea zure ikastetxean koordinatzen duen irakasleei aurrez eman diegun *Photocall*-era eta Super T bihurtuko zara. Ondotik, aski duzu hau egitea:

- Antifaza jantziko duzu
- Aurpegia *photocall*ak duen zuloan kokatuko duzu
- Eta zain egongo zara flashak piztu arte



Irardokizuna: Argazkiak sare sozialetan partekatu ditzakezu **#zureboTereak** traolaren bidez eta etiketatzen ahal gaituzu, egiten ari garen lana ezagutu dadin eta irudiak ikus daitezzen.

SUPER T

Behar dugun guztia daukagu mundua aldatzeko eta mundu bidezkoagoa, berdintasunezkoa eta baketsua egiteko, munduko pertsona guztiak errespetuz eta zoriontsu bizi daitezzen. Orain, zu ahalduntzea eta zure esku dagoen guztia egitea bakarrik gelditzen da mundu hori lortzeko. Nola egin dezakezu? Ez ahaztu zure super-antifazak behar diren botereez hornitzen zaituela gatazkak eta gorroto-diskurtsoak amaitzeko.

ESKERRIK ASKO POSIBLE EGITEAGATIK!

**“Bidaiarik luzeena urrats txiki batekin hasten da”
(Txinako esaera zaharra)**

1. ERANSKINA



inprimatzeko
eta mozteko

Etiketak

**Eskolako
zuzendaria**



SAME 2024

**Eskolako
garbitzailea**



SAME 2024

**Ikusmen
desgaitasuna
duen ikaslea**



SAME 2024

**Gure
hizkuntza ez
dakien ikaslea**



SAME 2024

**Futbolean
jokatzen
duen neska**



SAME 2024

**Baleta
dantzatzen
duen mutila**



SAME 2024

**Panpinekin
jolasten
den mutikoa**



SAME 2024

**Sakelako
telefonorik
ez duen neska
ikaslea**



SAME 2024

**Markako
arropa
daraman mutil
ikaslea**



SAME 2024

**Arratsaldean
jolastu ezin
duen neska
ikaslea**



SAME 2024

**Eskolara
gutxi joaten
den mutil
ikaslea**



SAME 2024

**Entzumen
desgaitasuna
duen neska
ikaslea**



SAME 2024

2. ERANSKINA



inprimatzeko

Detectómetro



Nola jakin eta atzeman gorroto- edo gatazka-diskurtsoa?

- ✓ Ez dio baliorik ematen pertsona edo gizarte talde bati
- ✓ Pertsona edo gizarte taldea objektu gisa tratatzen du
- ✓ Ez du errespetatzen pertsona edo gizarte taldea
- ✓ Irainak, kontzeptu negatiboak eta/edo gutxiespenak dauzka
- ✓ Iritzi negatiboa du
- ✓ Pertsonari edo taldeari min egitea edo gaizki sentiaraztea du xede
- ✓ Errepikakorra da.
- ✓ Mespretxua eta diskriminazioa sustatzen ditu
- ✓ Eragin negatiboa du
- ✓ Indarkeria sortzen du
- ✓ Txantxak eta indarkeria justifikatzen ditu
- ✓ Zurrumurruetan edo gezurretan oinarritzen da
- ✓ Metaforen eta/edo ironien bidez eraikitzen da
- ✓ Segregazioa eta/edo polarizazioa bultzatzen du
- ✓ Ez da ebidentzietan oinarritzen
- ✓ Pertsona edo gizarte talde baten aurkako arbuioa sustatzen du
- ✓ Erraz biralizatzen da sare sozialetan
- ✓ ...

*Erantsi egokituzat jo eta behar dituzun esaldi guztiak eta sortu zeure **detéctometro-a**.

3. ERANSKINA



inprimatzeko

Resolveitor



Gorrotoaren/gatazkaren aurka ekiteko eta haiek konpontzeko pistak:

- ✓ Elkarrizketa erabiltzea
- ✓ Bizikidetzaren onak sustatzea
- ✓ Informazio orori balioa ematea
- ✓ Konfiantzazko norbaiti laguntza eskatzea edo arazoa jakinaraztea
- ✓ Zure ikastetxeko edo komunitateko erakundeetako protokolora jotzea
- ✓ Elkarrizketarako gune seguru eta intimoak sortzea
- ✓ Gaia gelan lantzea
- ✓ Huraxe sufritzen duen pertsonari edo taldeari ahotsa ematea.
- ✓ Huraxe sortzen duen pertsonari edo taldeari ahotsa ematea.
- ✓ Errealitatea ez ezkutatzea
- ✓ Irakasleei gorroto-diskurtsoei buruzko prestakuntza ematea
- ✓ Ongia egiten duenaren erakargarritasuna azpimarratzea
- ✓ Ingurunera eta benetako arazoetara egokitzen diren egoerak lantzea
- ✓ Errespetuzko kultura ehuntzea
- ✓ Enpatiaz lan egitea. Galdetu nola sentitzen diren edo nola sentituko liratekeen antzeko egoera batean
- ✓ Kanpaina bat sortzea edo harekin bat egitea eta gorroto-diskurtsoen aurka mobilizatzea
- ✓ Politikoki ordezkatzeko zaituenari eskatzea legeak egin ditzala gorroto-diskurtsoen aurka
- ✓ Sarean gorroto-diskurtsoak ez zabaltzea
- ✓ Gorroto-diskurtso baten aurrean, kontrastatu eta informatu zaitez
- ✓ Zerbaitek deseroso sentiarazten zaituenean, errespetuz adierazi
- ✓...

*Gehitu zure ustez behar dituzun esaldi guztiak, eta sortu zeure **resolveitor-a**.

4. ERANSKINA

1. Albistea

Jendea Lampedusa uhartera iristen ari dela erakusten duen bideoa

Informazioa hemendik hartu da <https://maldita.es/malditobulo/20231004/personas-negras-carretera-lampedusa/>

M MALDITA.ES

Busca en Maldita.es...

Portada

Inicia sesión



Federico Soda
@fedsoda



Hundreds of Tunisian migrant workers who have been stranded on the Tunisia/Libya border for weeks have now forced their way into Tunisia.

Hundreds more are still waiting to return home in the absence of concrete action. There are at least 6,000 Tunisians in Libya.

[Traducir post](#)



7:39 p. m. · 20 abr. 2020

Argitalpen horrek honakoak izan ditu:

463 Ikustaldi **48** Aipamen **759** Datsegit **29** Markadore

Galderen boterea:

- Zer gai planteatzen digu irudi horrek?
- Arazoa da edo migratzea pertsona guztientzako eskubidea da?
- Egiazkoa al da erakutsi diguten informazioa?
- Bada ebidentzia zientifikorik informazioan, edo beste pertsona batzuen iritzi lerratuak dira?
- Nola egiaztatu dezakegu erakutsi diguten informazioa egiazkoa dela?

Albiste hori buloa da:

- Zer egin dezakegu bulo hori eta beste batzuk geldiarazteko? Zure ustez, iruzkinak ezabatuz gorrotoa bukatu da?

Sarea gorroto-diskurtsoz eta buloz beterik dago. Beste pertsona batzuen egoera, kultura, janaria, musika, jolasak, historia jakitea arras lan interesgarria da eta, ziur aski, haien egoerara gehiago hurbilduko zaitu eta, ondorioz, haiekin enpatizatuko dugu errespetuaren eta tolerantziaren bidez. Buloeak, ordea, pertsonen arteko enfrentamendua eragitea dute xede; beraz, ezin gara haietan oinarritu.

Beraz, gorroto-diskurtsoen zergatiaz eta ondorioez gogoeta egin duzun honetan, aukeratu albistean aurkitu dituzun bi gorroto-diskurtso gainerako taldeekin partekatze eta bateratzeko.

Egiazko bideoa

Egiazko bideoa: <https://twitter.com/fedsoda/status/1252290713041154048>

Bideo hori mezuen bidez hedatzen da eta ziurtatzen da Italiako Lampedusa hirira doazela. Baina ez dira irudi berriak: lehen aldiz 2020ko apirilaren 20an argitaratu zuen Migrazioen Nazioarteko Erakundeak (MNO) Libian zuen misio-buruak, Federico Sodak, hain zuzen ere.

Gizon horrek bideoa argitaratu zuen txioan esan zuen Tunisiaren eta Libiaren arteko mugan zegoela grabatua (bideoak kalitate handiagoa du orain hedatu denak baino). Hauxe azaldu zuen: "ehunka langile migratzaile tunisiar abandonatuak izan dira Tunisia/Libia mugan hainbat astez" eta une honetan "bidea ireki dute Tunisian". Horrez gain, hauxe idatzi zuen: "oraindik ere ehunka daude etxera noiz itzuliko zain, ekintza zehatzik ez dagoelako. Gutxienez, 6.000 tunisiar daude Libian".

Migrazio mugimenduei buruzko informazioa

Irakasleentzako informazioa, *geldiarazi migrazioari buruzko zurrumurrua gidatik hartua:*

Immigrazioari buruzko eztabaidak garapen-bidean diren herrialdeen eta herrialde garatuen arteko migrazio-fluxuak azalduz hasi ohi dira. Zenbaitetan, halaber, Hegotik Iparrerako fluxuak erabiltzen da eztabaiak hasteko, baina termino hori ez da oso zehatza eta libreki emana dago. Hori ezabatzeko, adibidez, giza mugikortasunari eta garapenari buruz dauden oztopoak gainditu behar dira.

Munduan, ia 4 aldiz pertsona gehiago dira beren lurralde nazionalaren barruan migratzen dutenak beste herrialde batzuetarantz emigratzen dutenak baino. Izan ere, NBERen kalkuluen arabera, herrialde barneko pertsona migratzaileak 740 milioi pertsona dira; nazioarteko mugimenduak, berriz, 214 milioi inguru (munduko biztanleriaren % 3,1).

Zurrumurru horren gune gogorra tolerantzia-mailaren nozioan datza. Kontzeptu horren arabera, gizarte hartzailea gauza da kuantifikatzeko zer unetan uzten dion immigrazioaren kudeaketak egingarri, moldagarri eta pairagarri izateari berarentzat. Diskurtso hori egiten dutenek beste bi pertzepzioren bidez indartzen dute diskurtsoa bera. Batetik, immigratzaile kopurua benetakoa baino askoz ere handiagoa da; eta bestetik, uste dute posible dela hurkoa mugatzea lanaren eta eskulanaren premian. Hau da, esaten dute egingarria dela migrazio-prozesuen funtsezko logika mugatzea.

Migrazioak dei-efektuaren ondorio hutsa baino gehiago dira; premia-efektuaren emaitza dira. Premia-dei horrekin bat, esparru hartzaile bakoitzak aukeratzen du zer immigrazio eredu eta mota behar duen. Tarta-diagrama ezaguna marraztuko bagenu, ikusiko genuke munduko migrazioaren % 63 gertatzen dela bai garapen-bidean diren

herrialdeen artean, bai herrialde garatuen artean. Horrek esan nahi du garapen-bidean diren herrialdeetatik herrialde garatuetarantzko migrazio ospetsu hori % 37koa dela. Europarrek aro modernoko migrazioerik garrantzitsuena egin dute, Txinako biztanleriaren barne mugimenduak alde batera utzita.

Amerika aurkitu zenetik XX. mendearen lehen herenera arte, kalkulatu da 50 milioi europarrek migratu zutela munduko beste leku batzuetarantz. Horrenbestez, duela gutxi kontua da Europak jendea hartzea eta, are berriagoa, Espainiak ere jendea hartzea.

Gutxien garatutako munduko 40 pertsonatik 1 bakarrik bizi da berea ez den herrialde batean, hau da, nazioarteko emigratzailetzat har daiteke. Proporzio hori zalantzarik gabe urria da, emigratzeko baldintza objektiboak betetzen dituzten herrialde horietako biztanleriaren ehunekoarekin alderatuta. Hortaz, arrazoizkoa dirudi pentsatzea, herrialde aldatzeko, ez dela aski desberdintasun ekonomikoak, sozialak edo dena delakoak izatea, baizik eta, gainera, emigratu nahi duten pertsonen horretarako arrazoiak eta borondatea izan behar dituztela. Eta, jakina, emigratzeko gauza ere izan behar dute.

5. ERANSKINA

2. Albistea

Emakumezkoen futbolak porrot egin du estadioetan: edukiera-datu apalek interesik eza erakusten dute. Iturria: El debate, 16/10/2023

https://www.eldebate.com/deportes/futbol/20231007/futbol-femenino-no-encuentra-aficionados-estadios-datos-desinteres_143699.html#disqus_thread

Q BUSCAR

EL DEBATE
FUNDADO EN 1910

29 de diciembre de 2023

PORTADA ESPAÑA ECONOMÍA OPINIÓN INTERNACIONAL SOCIEDAD CULTURA RELIGIÓN SALUD Y BIENESTAR MÁS SECCIONES



El Barcelona, mejor equipo de la liga española, jugó en Huelva el pasado fin de semana - Sporting de Huelva

El fútbol femenino fracasa en los estadios: los bajos datos de aforos que reflejan el desinterés

- Partidos de Primera División se juegan con tan solo 400 espectadores; pese al Mundial ganado, los aficionados no van a los estadios

Argitalpenaren iruzkinak:

-   hace 3 meses — 🚩
La extrema izquierda aprovechando el tirón mediático de ganar un mundial, han querido hacer campaña electoral y las jugadoras se han vendido. Tampoco han lucido mucho la bandera española en las celebraciones y todo ello se traduce en que han perdido el cariño de la gente. Uno recoge lo que siembra.
👍 3 🗨️ 0 [Responder](#) • [Comparte](#) >
-   hace 3 meses — 🚩
No es un equipo femenino, sino de feministas, histéricas, soberbias, y con muy mala leche.
Que han venido a meter mal...
¡No irá a verlas nunca, ni aunque me pagaran por ello!
👍 9 🗨️ 0 [Responder](#) • [Comparte](#) >
-   hace 3 meses — 🚩
No iría a ver a esas brujas ni aunque me pagaran por ello.
👍 6 🗨️ 0 [Responder](#) • [Comparte](#) >
-   hace 3 meses — 🚩
A esos partidos solo van los familiares l y los morbosos
👍 9 🗨️ 0 [Responder](#) • [Comparte](#) >
-    Por España — 🚩
hace 3 meses
Pues no sé que morbo encuentran en ver jugar a un montón de machorras y lesbianas, la verdad.
No encuentro feminidad en ninguna de ellas...
👍 7 🗨️ 0 [Responder](#) • [Comparte](#) >
-    Antonio García Gómez — 🚩
hace 3 meses
JAJAJAJAJAJAJA
👍 0 🗨️ 0 [Responder](#) • [Comparte](#) >

Galderen boterea:

- Zer gai planteatzen digu irudi horrek?
- Neskek edo emakumeek ez dute futbolearen aritzeko gaitasunik?
- Emakumezkoen futbola gizonezkoena baino aspergarriagoa da?
- Zenbat aldiz ikusi duzue emakumezkoen futbola? Zergatik ez gara joaten emakumezkoen futbola ikustera?
- Ezagutzen duzue emakume futbolariak?
- Agertzen al da emakumezkoen futbola hedabideetan? Zergatik ez?
- Ba al duzue erreferentziako emakume futbolariak?
- Inoiz baztertu dugu emakumerik, futbolearen jokatu nahi zuelako?
- Zuen ustez, zergatik daude estadioak hutsagoak neskek jokatzen dutenean?

Behin gaiari buruz hausnartutakoan, argitalpenenetik beretik sortu diren **iruzkinei buruz hausnartuko dugu.**

- Zer helburu du albiste horrek?
- Zer iruditzen zaizkizue iruzkinak? Iruzkin horiek positiboak edo negatiboak dira? Benetako daturik dute?
- Iruzkinak ongi tratatzen dituzte pertsonak edota gaizki mintzatzen dira futboleko jokatzeko duten emakumeek? Irainik edo mespretxurik al dute irudiko pertsonen aurka? Zergatik egiten dira hain iruzkin mingarriak?
- Gustatuko litzaizuke zu baztertzea kirolen batean aritzeagatik?
- Zergatik ematen diegu *datsegit* sareko iruzkinei? *Datsegit* eman baino lehen, galdetzen al diozu zeure buruari informazioa benetakoa ote den? Zure lagunen presioa jasotzen duzu *datsegit* bat emateko?
- Non bukatzen da pertsona bakoitzaren adierazpen askatasuna?

Sarea iruzkin mingarri dago betea, pertsonen arteko enfrentamenduak eraginda. Hori dela eta, garrantzitsua da beste pertsona batzuen egoera jakitea, hori lagungarria baita errespetuaren eta tolerantziaren bidez enpatizatzeke.

Beraz, gorroto-diskurtsoen zergatiaz eta ondorioez gogoeta egin duzun honetan, aukeratu albistean aurkitu dituzun gorroto-diskurtsoak gainerako taldeekin partekatzeko eta bateratzeko.

Kirol arloko emakume erreferenteak



Kathrine Switzer

Bostongo maratoia ofizialki (dortsala jantzita) laster egin zuen lehen emakumea izan zen, oraindik ere gizonkoentzako bakarrik egiten zenean.

Switzerrek bidea ireki zuen 1967an, genero-hesia hautsita munduko maratoirik garrantzitsuenetako batean; ondotik, emakumeak kirol horretan aintzat hartzearen aldeko borrokan jarraitu zuen.



Gertrude Ederle

1905ean jaioa, igeriketako txapeldun olinpiar honek Mantxako Kanala lehen aldiz igerian gurutzatu zuen lehen emakumea izan zen (Frantziaren eta Britainia Handiaren artekoa). 1926an egin zuen, 1925ean saiatu eta huts egin ondoren. 14 ordu eta 34 minutu behar izan zituen Frantziako itsasertzera iristeko. Urteak eta urteak behar izan ziren haren denbora errekorra hausteko, 1950ean.



Almudena Cid

Harro esan dezake lau final olinpikotan parte hartu duen erritmikako gimnasta bakarra dela (1996, 2000, 2004 eta 2008), harro ere, arrakastaz eta sariz

betetako kirol ibilbide luzea izan duela, eta berezko elementu bat sortu izana: "Cid Tostado" (pilotaren errodamendu bat da oinetik oinera, spagat hiper-luzatuaren posizioan).



Edurne Pasabán

Espainiako kirolaren balentria handietako bat Edurne Pasabánek egin zuen, munduko lehen emakumea izan baitzen 14 zortzimilakoetara iristen (zortzi mila metrotik gorako 14 mendiak), eta munduko hogeita batgarren pertsona izan zen balentria hori egiten. Bere lehen zortzimilakoa Everest izan zen 2001ean, eta azkena, Shisha Pangma, Tibeten, 2010ean.



Teresa Perales

26 domina olinpiar irabazi ditu eta lehiaketa horretako kirolaririk sarituenetako bat da. Zalantzarik gabe, eredugarria da bere egoera hobetzeko eta

egokitzeko ahaleginean (19 urterekin paraplegikoa gelditu baitzen, neuropatia baten ondorioz), eta lan etengabearen eredu. Bost Joko Olinpiarretan parte hartu du (2000, 2004, 2008, 2012 eta 2016), haietan guztietan dominak eskuratuta. Espainiako ordezkariaren banderaduna izan zen Londresen 2012an.



Simone Biles

Urrezko lau domina eta brontzeko bat lortu zituen gimnasia erritmikoan Rio de Janeiroko joko olinpiarretan.



Lydia Valentín

Gure halterofiliarik onena orain arte. Lydia Valentinek Joko Olinpiarretan dominak irabazteaz gain (hala han bertan nola ondotik, aurkarien

dopatzeko kasuen ondorioz), ederki lagundu du kirol hori ikusarazten gure herrialdean, batez ere gazteen artean eta emakumezkoen artean.

Hiru Joko Olinpiarretan parte hartu du (2008, 2012 eta 2016) eta hiru domina eskuratu ditu.



Ruth Beitia

Altuera-jauzian da espezialista, Espainiako lehen emakumea izan da domina olinpiarra eskuratzen atletismoan, Rio de Janeiroko jokoetan, 1,97 metroko altuera-jauzia eginez. Bere markarik onena (eta Espainiako errekorra) Donostian lortu zuen 2002an, bi metroak ere gainditu baitzituen, 2,02 metro, zehazki. Horrez gain, Europako txapeldun izan da hainbat aldiz.



Dawn Fraser

Igerilari ohi australiarra, lehen emakumea izan zen 100 metro libreak minutu batean baino gutxiagoan igeri egiten, 1962an (59.9 segundoan). 1964an, bere marka 58.9 segundoraino jaitsi zuen, eta inork ez zuen hura hobetu 1972ra arte. Errekorra lortu eta egun gutxira, auto-istripua izan zuen, ama hilda, eta Dawnek lesioak izan zituen lepoan eta bizkarrean. Hala eta guztiz ere, garaiz sendatu eta bizkortu zen Tokioko Joko Olinpiarretarako, eta han urrezko domina bat eta zilarrezko bat eskuratu zituen.

Emakumezkoen futbolari buruzko albiste estekak



Vive la Navidad más color en Barcelona! ¡TE ESPERAMOS!

PRIMER EQUIPO CLUB ESPAI BARÇA SOCIOS MÁS EQUIPOS ENTRADAS Y MUSEO TIENDA CULERS

Logia Registrato ES

El público también hace historia y el Camp Nou bate el récord mundial absoluto de asistencia del fútbol femenino con 91.553 espectadores

La gran respuesta de la gente azulgrana ha permitido superar los 90.185 espectadores que asistieron a la final del Mundial de 1999 en el Rose Bowl de Pasadena entre Estados Unidos y China

Barcelona.es 19,846

<https://www.fcbarcelona.es/es/noticias/2555074/el-publico-tambien-hace-historia-y-el-camp-nou-bate-el-record-mundial-absoluto-de-asistencia-del-futbol-femenino-con-91553-espectadores>

Actualidad

Un experimento demuestra que el fútbol femenino es tan interesante como el masculino

La Universidad de Zúrich prueba que los estereotipos impiden disfrutar del fútbol cuando los aficionados saben si juegan hombres o mujeres.



POR JAVIER BRAGADO PUBLICADO: 19/07/2023



10 futbolistas a seguir en la Eurocopa de fútbol por Women's Health ES

ACTIVAR SONIDO

FUTBOLISTAS

EN LA 0:00 / 0:59

<https://www.menshealth.com/es/noticias-deportivas-masculinas/a44586212/experimento-demuestra-igual-calidad-futbol-femenino/>

6. ERANSKINA

3. Albistea

Eraso basati eta amorrugarria haur autista bati Bartzelonan. Iturria: Diario de Sevilla. 2021eko urtarrilaren 5a

https://www.diariodesevilla.es/sociedad/brutal-agresion-menor-autista-barcelona_0_1535246822.html

Diario de Sevilla

SOCIEDAD

SEVILLA PROVINCIA ANDALUCÍA ESPAÑA ECONOMÍA SOCIEDAD DEPORTES CULTURA COFRADÍAS OPINIÓN ☰ TODAS LAS SECCIONES
CAUSA CRIMINAL VITALLY WAPPISSIMA SALUD TECNOLOGÍA MOTOR MASCOTAS DE COMPRAS MEDIO AMBIENTE

NOMBRAMIENTO María Jesús Montero sustituye a Nadia Calviño y se convierte en vicepresidenta primera del Gobierno de Pedro Sánchez

LOS PALACIOS Nieves, la bebé hallada en un contenedor, ya tiene una familia adoptiva

VIOLENCIA E INTOLERANCIA

Brutal e indignante agresión a un niño autista en Barcelona

- Un grupo acorraló al menor y le pegaron además de robarle un móvil
- Se ha entregado uno de los agresores
















Captura del video indignante

R.D.
05 Enero, 2021 - 18:28h



Albistearen gaineko iruzkinak:

- 06/01/2021
17:07:02
- Sr. periodista, escriba 100 veces: un grupo de menas, un grupo de menas, un grupo de menas, un grupo de menas, un grupo de menas, un grupo de menas... No pasa nada por contar la verdad.
-  (6)  RESPONDER  REPORTAR ABUSO
-
- 06/01/2021
12:28:17
- Con ser imágenes duras de ver, lo peor es que ningún chico ni ninguna chica (y eran muchos)se interpuso entre los agresores y su víctima. Los padres de estos chicos tienen mucha responsabilidad en este acto de violencia extrema.
-  (1)  RESPONDER  REPORTAR ABUSO
-
- 06/01/2021
20:19:38
- Claro, la culpa para los españoles que no ayudaron, te digo lo mismo que al otro baboso, ojalá te toque a ti, luego vienes y nos cuenta tu batalla.
-  (2)  REPORTAR ABUSO
-
- 06/01/2021
10:26:39
- Barcelona hoy por hoy es una caja de bombas, entre violentos separatistas y violentos ilegales y ocupas, aquello es invivible, esperemos que solo sea allí.
-  (0)  RESPONDER  REPORTAR ABUSO
-
- 06/01/2021
13:29:45
- también hay humúfogos..
-  (0)  REPORTAR ABUSO

Galderen boterea:

- Zer gai planteatzen digu irudiak?
- Normala al da horrelako erasoak gertatzea?
- Desgaitasuna duten pertsonak desgaitasuna ez duten pertsonak baino eskubide gutxiago dituzte?
- Inoiz ikusi al duzue erasorik desgaitasuna duten pertsonen aurka?
- Zergatik gertatzen dira eraso horiek?
- Inoiz baztertu dugu desgaitasuna duen pertsonarik jolasteko? Zergatik bazterten ditugu?
- Inoiz barre egin duzue desgaitasuna duen pertsona baten lepotik? Zergatik?
- Badakizue zer den autismoa? Eta down sindromea?
- Zer desgaitasun mota ezagutzen dituzue?

Iruzkinei buruzko gogoetan jarraituko dugu:

- Zer helburu du albisteak? Zer iruditzen zaizkizue iruzkinak? Iruzkina horiek positiboak edo negatiboak dira?
- Benetako daturik dute?
- Iruzkinek ongi tratatzen dituzte pertsonak edo, aldiz, gaizki esaka ari dira pertsonen?
- Irainik edo mespretxurik dute irudiko jendearen aurka?
- Zergatik egiten dira hain iruzkin mingarriak?
- Gustatuko litzaizuke jendeak zu baztertzea?
- Zergatik ematen diegu *datsegit* sareko iruzkinei?
- *Datsegit* eman baino lehen, galdetzen al diozu zeure buruari informazioa benetakoa ote den?
- Zure lagunaren presioa jasotzen duzu *datsegit* bat emateko?
- Non bukatzen da pertsona bakoitzaren adierazpen askatasuna?

Sarea iruzkin mingarri dago betea, pertsonen arteko enfrontamenduak eraginda. Hori dela eta, garrantzitsua da beste pertsona batzuen egoera jakitea, hori lagungarria baita errespetuaren eta tolerantziaren bidez enpatizatzeke.

Beraz, gorroto-diskurtsoen zergatiaz eta ondorioez gogoeta egin duzun honetan, aukeratu albistean aurkitu dituzun bi gorroto-diskurtso gainerako taldeekin partekatzeke eta bateratzeko.

Desgaitasunak eragindako gorrotoari buruzko informazioa




<https://www.interior.gob.es/opencms/pdf/servicios-al-ciudadano/Delitos-de-odio/Enlaces-de-interes/Los-delitos-de-odio-por-motivos-de-discapacidad-folleto.pdf>

7. ERANSKINA






inprimatzeko
eta mozteko

Txartelak








8. ERANSKINA

Antifaza



mozteko



9. ERANSKINA

Baimena

GOGORATU: zuen ikastetxeko ikasleak agertzen diren irudiak, bideoak edo bestelako materialak argitaratu eta partekatzeko, ezinbestekoa da gurasoen/tutoreen edo legezko ordezkarien **baimen egokiak** izatea, Hezkuntzaren aldeko Mundu Kanpainak irudiak bere sare sozialen bidez eta kanpainari lotutako erakundeen kanalen bidez zabalduko direla jakin ahala.

Zuen ahotsak Hezkuntzaren aldeko Mundu Kanpainaren sare sozialetako kontuetatik (Facebook, Instagram, Twitter, Flickr, webgunea edo hedabideak) zabaldu eta altxatze aldera, helburu nagusia dela SAME zabaltzea eta 4. GJH betetzearen aldeko borroka egitea, honako hauetara animatzen zaituztegu:

Materialak eta argazkiak partekatzera zuen ikastetxeen eta hezkuntza-guneen webgunean eta/edo sare sozialetan, Espainiako CME etiketatuz (behean, CMEn kontuen zerrenda). Horrela, Espainiako CMEn zabalduko diren materialak eman ahal izango digu, eta, horrela, herritar gehiagorengana iritsi.


Espainiako CMekin ere partekatu dezakezue materiala **comunicacion@cme-espana.org** helbidera bidaliz. Postan oinarritzko informazioa sartzeko eskatzen dizuegu:

- Ikastetxearen/hezkuntza-gunearen izena:
- Parte-hartzaileak (Ikasmaila/Ikastaldea/Ikaskela):
- Data eta lekua (herria, udalerrria, autonomia erkidegoa):

Garrantzitsua, mesedez, sartu honako paragrafo hau:

“[ENTITATEA]-k, Hezkuntzaren aldeko Mundu Kanpainaren baitan egindako jardueretan parte hartzen duenez, irudiak tratatzeko baimena ematen du, eta Hezkuntzaren aldeko Mundu Kanpaina (CME) osatzen duten erakundeei ematen dizkie irudiak ustiatzeko eskubideak, posta honen bidez partekatzeko. Tratamenduaren helburua CME ezagutaraztea edo sustatzea da, bai eta parte-hartzaileen irudia, ahotsa eta materialak zabaltzea ere, CME osatzen duten erakundeekin edozein komunikabide edo komunikazio-kanalen bidez. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko edo bestelako eskubideak erabiltze aldera, jo dataprotection@educos.org helbide elektronikora, eta pribatutasun-politika kontsultatzeko, jo hona: <https://cme-espana.org/politica-de-privacidad/>. [ENTITATEA]-k bermatzen du badituela haurren eta nerabeen guraso/tutoreek eman beharreko baimenak haien datu pertsonalak eta irudiak tratatzeko eta CMEko kide diren erakundeei lagatzeko”.

Irakurri dut eta onartzen dut. Sinadura eta zigilua:



www.cme-espana.org

HEZKUNTZAREN
Aldeko Mundu-kanpainia